

BIZITZA BIAK ETA ABIAK

Ezkituki aundi bat aurkitzen dogu zomorroe-tan: Bitan jaioten dirala.

Arrautzatik urteten diranean orugak edo kokoak dira eta ez dauke iñondik be gurasoen antzik, baiña gero krisalidara sartzen dira eta oiturak eta itxurak aldatu egiten dabez.

Batzutan aldakuntza ori astiro egiten da, beste batzutan bat-batean. Eta azkenean gurasoen antzekoa dan zomorroak urteten dau, adibidez, “prozesionariak” edo ibiltariak deritxegun millak oruga edo kokoak, millak mintxi koloretsu biurtzen dira.

Lenengo zomorroak arrautzak egiten dauz eta arrautzetatik agertzen da zomorrotaldea, esaterako saltamatxino geldiak milla arrautza egiten dauz, ibiltariak, oster, 300 baiño ez. Zomorrotatzuk bizitza guztian arrautza bat baiño ez dabe egiten, euliak, oster, seireun milla arrautza egiten dauz.

Zorri uledunak bat egiten dau, bera dan beste-koa. Arrautzarik politenak mintxiarenak dira.

Arrautza bat naiz asko egin, gordeleku on baten egiten dabez, batez be lurpean, eta jaioten dan kokoak antxe aurkitzen dau jatekoa. Landare-tan eta igalien barruetan be egiten dabez..

Zomorroak onak dira abiak egiten, lana ondo egitea jake atsegin. Lurra zulatu metro-erdi berantza eta an sartzen dabez janariak, berogailluakaz batera. Lurpeko bide luze ori euren anka txikiakaz egiten dabe, txirri-txiriak egiten dauan zuloaren antzera.

Or sakonean egiten dauz arrautzak eta dana lurrez estaldu.


Batzuk, euren buruak babesteko, seda-antzeko bat egiten dautsoe abiari inguruan, beste batzuk zurean egiten dabe abia, 30 zm'koa, eta gelatxu ba- koitxean arrautza bat ipiñi.

Beste batzuk buztinlariak eta igeltzeruak dira. Oneik eguzkiak jotzen dauan lekuan egiten dabez euren umeentzat lekuak, lurpe-zulo biurrietan eta zuloa barrenean dala, ura sartu ez daiten. Gorantza 3 zm., alboetan ormak dabezela eta janariak ugari arrautzentzat dan lekuan.

KAKARRALDOA

Izen aundiko zomorroa da au, ederra, bikaiña. Ejipto'n, orain bi milla urte, zoriona etorteko eta kalte guztiak kentzeko bidea zala uste eben, fenizioak, oster, jainko egilleak bialdua zala sinistuta egozan.

Sats eta korotz-zalea da, baiña ez ain jatuna. Gogoko jakozan janariak pillatu eta gorde egiten dauz, bola txikiak eginda eta zuloan. Gero jaki ori astiro gozatzen dau. Iñoz lagun bat eroaten dau etxera, biak batera jateko.



Kakarraldoen abia

Arriagarriak dira kakarraldoaren abi orreik, euren apalakaz.

Beste zomorrotatzuk oial-egilleak dira: Zulo barriak egin barik, lengoak barriri jantzi egiten dabez, beste zomorrotan batek itziak edo enbor naiz sustrai baten barruan dagozan utsuneak. Orriak eta uleak eroaten dabez, berogailñluak be bai. Egiña dan zuloa apaintzen dabelako edo zabaldu ta aunditu egiten dabelako oial-egilleak deritxegu onei. Eta gero sarrera itxi egiten dabe orri bategaz. Iñoz zulo orretan amar-bat abi egiten dabez.

Ba-dago erle bat karakolaren azal-barruan abia egiten dauana.

Beste batzuk tabako papela batzen dan antzera batzen dabe abia, esaterako baba-zorriak. Txikia da baiña orri baten atzean egin leike olako lana eta iñoz lan ori egiteko zorri asko alkartzen dira, gero abia guztientzat izatekotan.

Erleak argizaia egiten dabe eta orregaz umeentzat abiak gertatu. Orretarako zugutzen enbor zulatuak aurkitzen dabez. Iñoz ez dabe egiten eurak erlontzirik

Gauza asko ikasi geinkez zomorroengadik gizakien bizitzarako!

OLAZAR'tar Martin'ek